

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko azaroaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen::

KARABELEKO ELKARTEARI ZUZENeko DIRULAGUNTZA EMATEA

Karabeleko elkarte Hernaniko Portu auzoan aurkitzen da eta 25000m²ko laborantza ekologikoko eremua du, herritar ororentzat zein sektoreko profesionalentzat irekia dagoen proiektua izanik.

Baratze hauetan modu ekologikoan gure nekazaritzan berriak diren barazki barietate anitzak lantzen dituzte beti nekazaritza ekologikoaren irizpide legal eta filosofikoak kontuan izanik. Hau denalehen sektore berritzaile eta iraunkor bat sustatu asmoz.

Beste alde batetik buru osasun arazoak dituzten pertsonak etagizarte-bazterketa arriskuan dauden bestelako kolektiboentzako errehabilitatzeko zentro psikosoziala da. Honela astean zehar buru

osasun arazoak dituzten 30 lagun joaten dira errehabilitazio taldera eta lan munduratzeko aukerak eskaintzen zaizkie. Honez gain IRESGI bidez Martuteneko presondegiko 10 pertsona etortzen dira

formakuntza jasotzera eta Hernaniko beste hainbat eragilerekin harremanak mantentzen ditu elkarlanerako esaterako AHMER eta elikagai bankuarekin.

Gainera aipatzekoa da ere gizarte eraldaketa sustatu asmozsustatzen ari diren lurralde inpaktua garatzen ari diren lan ildo ezberdinen bidez, esaterako hitzaldi, azoka eta komunikabideetan produkzio ekologiko eta buru osasun arazoei buruz sentsibilizatzen.

Baina baita eskualdeko errestiturazioaren sentsibilizazioa bultzatzen edota norbanakoen ikusmoldea aldatzen.

Azkenik, bazterkeria egoeran daude pertsonentzako sortu berri duten Enplegu Zentru Bereziak ekarpen handia egiten dio herriko enpleguratzeko baliabideen eskaintzari, eta aukera handiak eskaintzen ditu berezitasun jakin batzuk dituzten pertsonak laneratu eta gizarteratu ahal izateko.

Honela elkarte honek buru osasun arazoak dituzten pertsonen errehabilitazio eta lan munduratzeko batetik eta nekazaritza ekologikoko ikerketa bestetik bi bereizgarri bakarrak ditu elkarte honek bai Hernani mailan baina baita Gipuzkoa mailan ere. Horregatik elkarte honen izaera bakarra medio deialdi publiko ireki bat ez burutzeko erabaki da.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2022ko azaroaren 3ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, GOBERNU BATZARRAK **AHO BATEZ erabaki du**

Lehena.- Dirulaguntza zuzena emateko Hernaniko Udala eta Karabeleko elkartearen arteko dirulaguntza hitzarmena onartzea

Onuraduna; Karabel elkarte

Diru Kopurua 12.000

Aurrekontuko partida 02.481.01.439.00. Kopurua: 12.000,- (AD-1948/2022).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorritik

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2022ko azaroaren 10ean

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU**b**9d0ccf3-e221-41b8-9011-29f88c20112f**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>**